

“BILDU eta EAJ-PNV udal taldeek Udal honetako Osoko Bilkurak bere

egin dezan honoko mozioa aurkezten dute:

2012 MAR 23	
614	

LODOSAKO IBAIALDE IKASTOLARI LAGUNTZEKO MOZIOA

Lodosa-Sartagudako Ibaialde ikastola oso egoera ekonomiko larrian dagoela iragarri zigun duela gutxi Ikastolen Federazioak.

Ibaialde ikastolak duela 25 urte hasi zuen bere ibilbidea. Gaur egun, 74 ikasle ditu, eta ikasle gehiago erakartzea du aurreikusita, baina “eremu ez-euskaldun” kokatuta egotea oso eragozpen handia da aukera hori gauzatzeko. Ikastolak urtean 70.000 euroko zenbatekoari egin behar dio aurre zentroan egindako obrak finantzatzeko. Gainera, itundu gabe dauden bi ikasgelen kostua 100.000 eurora iristen da urtean, eta horrek kolokan jartzen du horien etorkizuna.

“Eremu ez-euskaldun” horretan kokatuta dauden ikastolen egoera oso zaila da, eta, orain arte, gurasoen eta irakasleen ahaleginek eta gainerako euskaltzaleen elkartasunak bermatu dute ikastola horien iraupena.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikaren ondorioz iritsi da Ibaialde ikastola egoera ekonomiko horretara. Politika diskriminatzaile horrek hainbat mailatan bereizten ditu Nafarroako herritarrak, eta urratu egiten du euskaraz ikasteko eta bizitzeko eskubidea.

Nafarroako Euskararen Legeak ezartzen duen eremu-bereizketak ito egiten ditu ekonomikoki hegoaldeko ikastolak, eta ia ezinezkoa da euskaraz irakastea eta ikastea. Horrela, beraz, Nafarroako familiek ez dute askatasunik eta berdintasunik seme-alabak matrikulatzeko ikastetxea aukeratzeko garaian.

Hori guztia dela-eta, Ibaialde ikastolak laguntza behar du orain. Horretarako, Ikastolen Federazioak “euro bat, marrazki bat” kanpaina jarri du abian. Kanpaina horretan, Euskal Herriko bazter

guztietako ikastola edo ikastetxeetako neska-mutilek marrazki bat egingo dute, eta nahi duenak euro bateko ekarpena egingo du. Ikastetxeetan biltzen diren euro guztiak Ibaialde ikastola mantentzen laguntzeko erabiliko dira.


Dagoeneko udal askok erantzun diote ekimen horri. Zehazki, ekimena abian jartzen duten ikastola edo ikastetxeetan haur bakoitzak jartzen duen euro bakoitzeko kopuru bera jartzeko konpromisoa hartu dute.

Horren ondorioz, eta azaldutako guztia kontuan hartuta, Bilduren Oñatiko udal-taldeak honako mozio hau aurkeztu du eztabaidatzeko eta onartzeko:

1.- Udal honek babesa, elkartasuna eta esker ona adierazi nahi dio Lodosako eta Sartagudako Ibaialde ikastolari, 25 urte hauetan haur askori euskaraz ikasteko eskubidea bermatzeko egin duen lanagatik.

2.- Udal hau bat dator Ikastolen Federazioak abian jarritako kanpainarekin, eta konpromisoa hartu du Ibaialde ikastolari laguntzeko. Horretarako, Txantxiku ikastolako ikasleek Oñatin bildu duten diru kopuruari euro kopuru bera gaineratuko dio, eta euro horiek guztiak hain egoera ekonomiko larria bizi duen Ibaialde ikastolari laguntzeko erabiliko dira.

Oñatin, 2012ko Martxoaren 23a

A handwritten signature in black ink, consisting of several overlapping loops and a long horizontal stroke extending to the right.